

Juan Miguel Gastesiren bi “Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia” (Marie Santisimeren Devocioa) 1850-1854

EUGENIO ULAYAR

HITZAURREA

Euskaltzaindiaren “EUSKERA” aldizkarian (XXVIII-2-, aldia- 1983, 2-335-337 hor.) Lakuntzako Parrokiako artxiboko euskal idatzien berri ematen zen. Argiratu gabeko esku idatzien artean Juan Miguel Gastesiren lanak aipatzen ziren.

Bere eta beste idazle batzuren sermoien eredu batzu aurki argitaratuko dira. Bainan bere “MAYATZEKO ILLABETIA: MARIAREN ILLABETIA” bi liburuen berri eman dezadan eskatu didate “FONTES” aldizkarian agertzeko asmotan.

Bere euskal lanak ikustean, aldizkari honetan agertzea merezi duela deritot, euskararen “iturri” ugari eta aberatsa bait da.

I. NOR ZEN JUAN MIGUEL GASTESI?

Bere izen osoa Juan Miguel Francisco de Gastesi eta de Huarte du. Irañetan, Aralar mendiaren egalpean, 1798.urtean, Irailaren 28'an jaio zen (Bat. 3. Lib. 104 hor. itz.), zazpi senideen artean hirugarrena.

Bere aita, Miguel Antonio de Gastesi, eta bere ama, Juana Isabela de Huarte, biak Irañetakoak.

Aiton-amonak: aitaren aldetik, Juan Miguel de Gastesi, Moxolorena etxeke jabea eta Martina de Echebetz, Mandillarena etxeke etxekeandrea, Irañetakoak.

Amaren aldetik, Martín de Huarte, Uharte Arakilekoa, eta Sebastiana de Zudaire, iraiñetarra.

II. LAKUNTZAKO PARROKIAKO BIKARIOA

1826. urtearen uztailan, 27 urte bete baino lehen, Lakuntzako bikario dugu, eta hemen izanen da 1861'ko Irailaren laueraino, 35 urte. Osasunez makal samar zebilen eta Arabako Sobron herriko ur-etxera joan zen urak hartzera eta han hil zen esandako egunean, 63 urte betetzera zijoala.

Lakuntzako parrokian egin zuen lana luzea eta aipaga-garria da. Berari esker berri franko badugu, zeatz-meatz eramaten bait zituen bere gauzak.

Hasteko, bere gaztaroan frantzesen independentziako gudatea ezagutzen du; alderdi honetan gertakizun honek utzi zuen miseri eta gosetea arindu nahiez, herriari lagunduko dio Urbitarteko eta beste toki batzuetako sasiak haus-ten, jendeak gosea kentzeko baratz eta lurra izan dezan.

Bere garaian izan ziren Lakuntzako bi "kolera morbo" ikaragarriak: bata, 1834. urtean 52 hil ziren, horietatik 38 kolera morboz; hamaseiri Magdalena baselizan lur ematen diote. Gero, tokirik ez eta San Antonen baselizatik urbil, zubi ondoan lurperatzen dituzte 1855'eko Abuztuaren 2. eguneraino.

Urte honetan bigarren kolera morbo dugu Laguntzan eta sinez beltza eta ikaragarria izan zen: 82 hiltzen dira eta horietatik, 60 koleraz; berarekin bizi zen iloba ere hiltzen zaio.

Aipagarria da berak Dif. 3 lib. 119 hor. ematen digun oharra: "Aurretik jarri diren eta gero idazten diren hilen agirietan, hau da, *Kolera morboz* hildakoetan, ez da lur eman zitzaien ordurik jartzen, hil orduko gorputzak etxeetatik ateratzen ziren eta Antonio doatsuaren baselizara eramaten ziren, eta handik, ordu batzuetan geroago hiltzera eramaten: hiletan berri ere ez da ematen, ez bait zen ezar egiten, nahiz lehenbizikoekin egin; gaitzek joak zenbat ordu bizitzen ziren ere ez da aipatzen. Batzuetan sei orduz bizitzen ziren; gehienak 12, 10 eta 8 egunez bizitzen ziren. Nik, Bikarioak, ohar hau idatzi nuen". Eta sinatzen du, D. Juan Miguel Gastesi.

Gertatuko da eguna senar emazteak ordu gutxi barru hiltzen direnak; biak agiri batean jasotzen ditu eta esanerazen dio: "Oh, gaitz gogorra!"

Gudateak eta gaitzak gehienean elkarrekin dihoaz eta lehenbiziko kolera morbo lehenengo karlisten gudarekin gertatu zen eta, aipagarrien artean, gure apaizak berri bitxi hau ematen digu: D. Fructuoso Bayona, Tarazonako semea,

Teniente Koronela eta Zumalakarregiren agintzapean karlisten lehenbiziko baitailonaren "Kapitan de Guías" zena, Dorrauen liberalek zauriturik harrapatu zuten, eta D. Bicente Kesada, liberalen Jeneralaren aginduz, 1834'eko Apirilaren 27'an Lakuntzan hil zuten eta bertan lur eman. (hil. 3 . lib. 56 hor.).

III. KONTU ERAMAILE ZINTZO ETA ESKU ZABALEKOA.

1846. Otsailaren 11'an, Fernando Lecea eskribauaren aurrean egiten duen bere testamentuan, beste batzuen artean, ha u esaten du: "Nik dakidanez Elizako parrokiari ez diot bere ontasunetan kalterik egin, bainan ohartu gabe zerbait ahaztuta utzi banuke edo beste nola-nahi zerbaitetan kalte egin banioke, oinordekoak ordainduko duen *urrezko* ontza bat Parrokiari uzten diot".

Bere larruzko kontuen liburuan ohar hau uzten du: "1853. urtearen Urrian Elizari zura edo oholtza ematea egin zen eta 1659 erreale fte.gostatu zen, eta diru hori Elizari ematen diot nere pekatuen ordainez eta bere ontasunen kontuetan zerbaitetan kalte egin banioke".

1861.eko Abuztuaren 26'an, Lorenzo de Ayala eskribauaren aurrean Sobroneko ur-etxean egin zuen kodiziloan, beste batzuen artean, hau aurkitzen da: Bera Bikarioa den Elizako kontuak zuzen, erabat kontzientziaz eta justifikaturik daude; bere logelako kutxan larru azaleko liburu baten barruan aurkitzen dira eta zazpi urtekoak dira, eta zalantzaren bat sortuko balitzake, *beti Elizaren alde joka dezatela*.

IV. PARROKIAKO KONTUAK.

1862. eneko Martxoaren 22'an, Francisco de Oyarbide eskribauaren bidez, Miguel Etxeberria, herriko "primizieroa" eta Antonio Galarza, Arbizuko Bikarioa lagun zituela, Lakuntzan bizi zen bere anaia eta oinordeko Pedro Joanek, tarteko gelditu zen Lakuntzako Bikario José Barrenari bere anaiaren kontuak ematen dizkio.

Oinordekoak, Elizari inolaz kalterik egin ez dezaieten kontu haundia eskatu du.

Kontu guztiak garbiturik, 4.770 erreale fte. eta 11 mahadi gelditzen dira Elizaren alde.

Diru hauekin eta beste aurrekoekin, kontu hauetan bertan kontu ematen den *organoa* erosiko da; honen berri Bikario berriak ematen du. Organo hau Azpeitiako Juan de Amezuak egina da; barrotoetik erromantikora pasakoa da, aurreramen berezia daramala. Nafarroa guztian holako bi besterik ez omen dira eta Lakuntzakoak, besteak ez bezalako konsola du. 13.500 erreale fte. gosta zen;

1.500 kutxa urreztatzea. Bere frogaketa egin zen eta herriak jai eta “hauzatea” izan zuen. Dena ordainduta, Elizarentzat oraindik 2.626 erreal fte. eta 29 mahadi geldituko dira. Organo hau Nafarroako Organo Artistikoen Katalogoan aurkitzen da.

Garai harretan Lakuntzan zer eta zenbat ereiten zen jakin nahi duenak, gure Joan Mileken Elizako kontuetan gaia franko aurkituko du.

Bere anaia Pedro Joanek bigarren emaztetik alaba bat izen zuen, Juana Martina, eta aita hiltzean, hamasei urte zituela Arruizeko Miguel Esteban Arregui Alustizarekin ezkondu zen 1884.eko Irailaren 30'an (Bat. 6. lib. 12 hor. itz.) eta hamar ume izan zituen. Agotzaren denda zaharrean bizi omen ziren eta Egurzanekeo etxea erosi zuten eta gaur daraman bere aitaren izena eman zioten: “Pedro Joanena”. Gaur Lakuntza betetzen duten Arreguitar ugari utzi zuten.

V. EUSKALZALEA.

Lakuntzako Parrokian aurkitzen diren, Arin, Kardaberaz, Mendiburu, Moguel eta beste batzuen liburu ugariak, hemengo garai harretako euskal giro eta zaletasuna adierazten dute. Bere sermoi edo eliz itzaldiak oso ugariak dira.

Nik gaur agertu nahi dudan bere idatzia, esandako Mayatzeko Illabetia: Mariaren Illabetia” da.

Eskuz idatzitako eta jositako bi aletan aurkitzen da. Aldez-alde hamasei eta hamaika cmo.; lehenbizikoak 226 horrialde du, eta bigarrenak, 192: bainan ale bakoitzean Hilabete bat ematen digu; horrek esan nahi du ez dela bat, baizik bi Hilabete direla.

Lehendabizikoaren sarreran, erdaraz digunez, 1841. urtean Madriden “Compañía General de Impresores” argitarazaleak argitaratutako “Mes de Maria”ren itzulpena da, beste eredu batzu erantsiz.

Aurreko oharrean erdaraz digunez, Mariaren Loreen debozio hau Parrokia honetan 1850. urtean hasi omen zen; urte honetan begiz erdaraz irakurtzen zuena euskeraz esaten omen zuen unean itzuliz; bainan lan hau nekoso samarra zela ikustean alde batetik, eta bestetik, jende asko zetorrela eta hortik zetorren fruitua, euskeraz idaztea erabaki omen zuen 1851'erako, ahal-bait hitzez-hitz esandako liburua itzuliz.

Egun bakoitzean bi eredu edo exenplu ematen ditu: bata, liburuak dakarrena eta bestea, Maria Ligorioaren “Las Glorias de María” libututik hartuak gehienak, eta toki bakiotzean aipatzen diren beste batzuetatik. Lan hau hartu omen zuen urteoro berdinak ez irakurtzeagatik, baizik urte batean, bat eta bestean, bestea.

Bigarren alea ere Mayatzako Mariaren Hilabetea da, bainan *berak* aukeratu eta eratua egun bakoitzetarako. Gaiak, gehienak, Ligorioaren liburutik hartzen

ditu eta beste batzuetatik ere bai eta askatasunez erabiltzen ditu, nahiz zatiak hitzez-hitz itzuli.

Bigarren ale honen hasieran, erdaraz, esaten digu:

"Beste Hilabete bat 1854'eko Maiatzarako".

Gogamenen izena ematen die ohar hau gero erdaraz idaztean: "Liburu honetako gogamenak Glorias de Maria'tik Maiatzako egun guztietarako eginak, nahiz 1854. urtean denak irakurri, luze samarrak zirela ikustean, gero eritzia aldatu nuen eta Maiatzaren asteazkenean, larunbatean eta azken egunean liburu honetatik egiten dut, eta beste egunetan, lehenbiziko liburutik."

Liburu bakoitzetik egun bateko eredu ematen dut, euska-zaleek bere euskera eta lana ezagutu dezaten

DIA TERCERO

"Gure animeren Dignidadieren, eta excelencieren
Consideracioa"

Consideradezazu, anima Nerea, zaiñ preciosa, edo valiosa zaren Zure hizatieren nobleza dela medio. ¿Cer escutatic ateraciñen? Jaungoicoaren escutatic. ¿Noren imagiñera, eta semejanzara eguiñe zara? Jaungoicoaren imagiñera, eta semejanzara. Au ez da esageracioat, edo hiz egiteko modu banoat, baicic da fedeco eguibat, edo misterioat: Deus creavit de terra hominem, et secundum imaginem, suam fecit illum Eccl. 17. 1.).

Jaungoicoac criatuzuen Guizona lurretic, eta eguinzen bere imagiñera, eta semejanzara. Eta! zuc eztuzu pensatcen cere noblezan; eta ontan ez pensatcie asqui eztela, galcenduzu pecatu mortaladela medio imagiñe ederrau, arciagatic Demonioaren imagiñe icaragarrie!

Considerazazu, ontas landara, ceñ preciosa, eta baliosoa zaren zure erremedioco Precioa consideraturic. Anima Nerea, zu galdue ciñen, eta galdube seculaco. ¿Noc rescatatu, eta libratuciñuzquien Demonioaren podoretic? Zure ceruco Aite Amorosoac. Eta ¿Cer eman zuen onec zu recatateco edo libratceco Demonioaren podoretic? Urria, Cillarra, Arri Preciosoac? ha! Ascos gayeco infinitamente gayego.. Emandu zu rescatatciagatic bere Seme Divinoaren vicie, eta Odol preciosisimoa. ¿Eta vicibat! Aiñ preciosa, vicibat aiñbeste gostatua, galcenduzu, eta malogatcenduzu zuc tentu gaiztoat dela medio eta gusto ciquinbat dela medio? Gauza negargarrie por cierto!

Considerazazu en fin cein preciosa zaran; consideraturic zure felicidadieren Destinoa. Zu zara anima nerea, Ceruco Erregueren alava, destineturic noizbait jarceco onen Trono, ederraren ondoan, eta erreinetceco eternidade guztien arrequin batien. Baño ¿Principe, edo erregebaten alava hizan biarduena noizbait Coronatube? Cenbat cuidado, eta cenbat diligenciequi, ezta educatcen, eta acitcen bere Aitaren Palacioan? ¿Eta zu anima nerea, Ceruco eredera, nun zauder, eta nola vicicera! Ho! nere Jauna, eta Jaungoicoa! biarbada vicicera pecatu mortalian animale inmundo, edo ciquiñen guisa... eta etcera lotsas veteric guelditcen? eta ez duzu beldurric deserdatuco zaituela Jaungoicoac Cerutic? Considerazazu ongui, eta parazazu diligencie Ceruco erencia Irabazteco.

Ejemploa

Ecín sufritu du marie Santisimec bere onrrara ofrecituric, edo dedicaturic dagon gauzabat serbidezan guero pecaturaco: bada ¿nolaco beguiaqui begiratuco dio Animari pecatu mortalarequi manchaturic dagonari, hizanic anime consagraturic dagona bere Seme Maitiaren Odol preciosoarequi?

Sebillen hizanducen Marie Snatisimeren Congregacio, edo Cofradiebateco Secretario bat, onec adornatucituen bi Plume urre, eta sedarequi choill ederqui: Plume aubec solamente ibilcencituen Cofradieco zerbait gauza escribitubiarzuenien, eta ala aubequi escribicencituen ermanuen nombriec liburuben, eta errecibo, edo patentiac biarcirenac Cofradieren serbizioraco, ezuten beste destinoric Plume aubec: Cofradiartaco mutil gazte batec ostucion bitetic bat, baño gostatuzequion garesti lapurreciau.

Mutil gazteonec tratatcenzuen emacume, ez aguiz onestabatequi, oni manifestatceco bere amorioa, eta intento gaiztoa, artuzuen Plume, ostuore escribitceco; baño escribitcen asiceneco emanziõn norbaitec masalleco golpe andibet, baño etzuen icusi noc eman cion solamente adituzuen vozau: “Gazte gaiztoa, edo malvadoa baduc atrebimentue profanatceco gaucebat nere onrrara dedicaturic, edo consagraturic dagonbat?”.

Golpe terriblionequi, eta voza lotsagarrionequi eroricen desmayaturic miserabile, eta guenducion norbaitec escutic plume, eta auspes lurrien cegola ezagutuzuen bere pecatue, escatuzuen bere pecatueren barcacioa, proponituzuen emendatcia: baño ez orgatic juanzaquion egun ascos, bere masalleco golpiaren señalía, bada amorotaturic udiquizuen asco egunes, (siñestatceco etcela hizandu golpe manzalie mundutarra baicic, beste munducoa:) bada itces nai hizandu balure ocultatcie, ecin ocultatuzuquien bere aurpeguico señalie. Obequi eguiñen zuen escribitu balitu Plume arrequi Marie Santisimeren eta Jesusen hienac, asco devotoc, eta Santuec Bezala”.¹

Obsequioa

Examiñatu concienzie bacochoac; eta pecatu mortalian balinbedago, confesatu berela, eta artu damutasune eguiazcoa lenago eguindirenas.

Jaculatoria, edo Suspirioa: *Solve vincla reis, profer lumen cecis*. Virgiñe Marie, Quendubizquico cateac peccatariei, eta eman bezo arguia peccatuen hichaturic dabilcenei, billaceco gracie. Amen”.

Ejemploa

“San Ligorio. Glorias de María. tomo 1.º, fol 61.

Marie Santisimec asco senticendu len ona, eta onen devotoa cena, guero gaiztotcies, baño alare eztu desamparatcen bere devotoa hizanducena.

Inguelatierran hizanducen Arnesto daitcencen gazte Caballeroat: onec saldu zuen bere ondasun guztie, emancion probiei, eta eguincen Monge; estimacio andien egonducen dembora pusquebatian Combentuen, Cergatic cen Marie

Santisimeren Devotandie. Ocurretucen Demborartan peste andibat Inguelatie-rran, eta acudituzuten gendiac Combentuartara erremedioaren billa: Eta Abadiac manaticion Arnestori (nola baicen Marie Santisimeren Devoto andie) cijuela Marie Santisimeren Capillera, eta escatcezola Pestiaren erremedioa; obediticion: iru egunen (barruan) buruen emancion errespuesta Marie Santisimec, eta eracutsicion cer eguin biartzuten pestiore guelditceco: Arnestoc esancituen oracioac eguiñorduco guelditucen Pestia: Baño ¿cer guertacenda guero Arnestorequi? Utcizuen enteramente Marie Santisimeren Devocioa: Au utcizuen medios Demonioac tentacendu Pecatu genero guztietara, baño principalmente Desonestidadecora; Determinacendu ateracie combentutic, badua saltacera combentutic; pasatubiarzuen Marie Santisimeren Imagiñebaten aurretic, onec esatendio, *NERE SEMEA cergatic uzten nauzu?* Orduen icaraturic, eta Arrituric Arnesto eroricen lurrera eta errespondaticion: Eztubada icusten nere Amaecin vencitudituela Tentacio andiauc?

Marie Santisimec errospondaticion ¿Certaco eznauzu daitu Tentacio oyetan? zuc daitu bañinyuzu Tentacio oyetan etciñen allegatuco tranceortara. Onequin itzulicen Arnesto bere Celdara; baño etorriciren berris tentacioac; juanzan igasi Combentutic, artuzuen vicitce, eciñ gaistoagocoa, eguin cen Bandalero, artuzuen bentabat bere conture, eta pasagero Dirue, eta Vicie:

Beste ascoren ertien Yllzuen gaubetien Gobernadorieren Lengusebat; eta Gobernadoriec aberiguatuzuen Benteroa cela Guizon illzalie; eta senteciatiuzuen: Urcabeza.

Baño procesoa, edo cause seguitcenzegon Demboran, ellegatucen Ventara Caballero mutil gaztebat: Eta gure Venteroa juan cequion illcera gaubien bere ogatcera beste ascorequi eguinzuenbezela; Baño Gauza arrigarrie! Juan zan Caballeroa cegon ogatcera, eta CABalleroaren lecuen billacendu Jesu Cristoren imagiñe andibat guztie llagaturic, eta itze egitendio modu ontan. *Ezta asqui ni bain illcie irregatic? Bigarren aldien illcera elduaquit? Gora zac escuori, illnazac berris baldin baducac atrebencieric.*

Orduen arrituric, eta confundituric gure Arnesto astenda negarres, eta esatendio, Jauna, yaque berorrec aiñbeste misericodies usatcen duen nerequi, nait dut mudatu nere vici modu gaiztoa: Ateracenda Ventatic, ustes itzulceco bere Combenture penitencie eguitera; baño arrapacendu Justiciec, eramatendute Juezarengana, onen aurrien confesacenditu bere Delituec; eta Juezac ematendu sentencie Urcatceco ez confesio, eta Comunio: baderamate Urcatcera, eta orduen encomendacenda alzuen moduen Marie Santisimerengana: Urcatcendute ustes; baño Marie Santisimec defenditcendu, ezta illcen urquebian chilinchea egondubacenera: Marie Santisimec Jaistendu, eta esatendio goye lengo combenture; eta eguindezac penitencie ariqueta nere imagiñeren escuen icusi artian Cedula bat egonendena ire pecatuen barcacioa: eta an icustenducanian preparadi illecco:

Ytzulicen Arnesto bere combentura, confesatucizquion bere pesatu guztiec Abadiari; eguinzuen penitencie bere Pecatuec meresizuten becelacoa: eta icusizuen egunbatien Marie Santisimeren escutan Cedula, bere pecatuen barcacioarena, eta onquin illcen santamente.

Egemplo onequi ¿Norc desesperatucodu bere salvacioas? Norc eztio hizanen Marie Santisimeri Devocioa?”

(1) Lehendabiziko horren pensaera ulertzeko, lagungarri bezela, zerbait nereonek nere Afrikako egonaldian ikusi edo entzundako zerbait aipatu nahi dut.

Egun batez, nere joan etorritan, Cabo de Agua herriskan gertatu nintzen. Han eskola bat zegoen eta bertan Irakaslearen bizilekua eta bertako Kristauak biltzen ziren kapera edo kapilatxo bat.

Misiolaria urruti zen eta urtean bein edo besterik ez zen joaten eta irakaslea, espaniarra, zen kapelaren eta hango kristauen ardura edo kargu zuena. Apaiz bat joatea oso pozgarri erori zitzaion eta oso gogo onez hartu ninduen eta gaua bere etxean egin nuen.

Ohiturazko debozio eta elizkizunak berak egiten zituen; Maiatza zen eta Mariaren Loreak egiten ari ziren; eta morotxoak Jesusi eta Mariari erakusten zioten maitasuna eta begiramentua adierazi nahi izan zidan eta hau esan zidan:

Nire eskolan, kristauak ez-ezik, morotxoak ere badaude, eta normalean arbelan zerbait klaioiarekin idazten danean, gero trapearekin edo eskubilarekin garbitzean, hautsa lurrera erortzen da; bainan Jesusen edo Mariaren izenak idazten badira, hauts hura santua da eta ez daiteke lurrera erortzen utzi eta ardurara haundiz dusotzen dute.

BIGARREN LIBURUTIK -DIA SESTO-

Ceiñ andie hizan biarduen gure Confianza Marie Santisimen Cergatic Au de gure Ama. (Ligorio, t.º 1.º fol. 18) 6.ª Consideracioa.

Marie Santisimeren Devotoac comunmente daitcendiote Oni Ama; eta badirudi eztaquitela daicen beste icenbatequi: eta eztirela aspertcen daitcias Ama, eta Ama bai por cierto, eta arrozobe andierequi daitcen diote Ama, cergatic eguiasqui da gure Ama: ez Ama Carnala, baicic espirituala gure animena, eta gure Salvacioarena.

Bi demboretan eguincela Marie Santisime gure Ama espirituela diote Elizako Doctore Sanduek. Lembicicoa: Aigeru San Gabrieleac anunciacionien Jesu Christoren Encarnacioco Misterioa; Eta Onen Ama hizateco consentimentue emancionien. Instante ontan bada escatucion Jaun Divinoariafecto eta favore andiequi gure animen salvacioa, eta erremedioa. Eta gure animen salvacioa alaco modus procuratuzuela (dio Sn. Bernardino de Senac,) hece instantiartatic asita beti eraman guiñuzquiela bere Senoan, edo Viotcien Ama amorossimoac bezala.

Sn. Lucas Evangelistac, esatendigu jesu jaioceneco misterioan; Marie Santisimec eguinzuela Primogenitua. Jesus bacen Primogenitua, Marie Santisimec ¿geros izanducituen beste batzuec ondorien? Bada Primogenitua suponitcendu badirela beste seme batzuec. Da fedeco misterioa Marie Santisimec etzuela izandu beste semeric baicic Jesu Christo: eta au ez gizonen bides, baicic Espiritu Sandueren itzalas edo virtutes:

Bada Promogenitoac suponitcendituen ondoreco semeac gara gu; ala errebelatucion Jaun Divinoac Santa Gertrudisi, esatenciola Jesu Christo da Marie Santisimeren Promogenitoa, beraren gandic jayoa: baño gizonac dire Marie Santisimeren ondoreco seme espiritualac: Orgatic Guillermo Abadieac esatendigu, Marie Santisimec Jesus eguinzuenian, au baitegure redentorie eta Salvatore, guztioac eguin guñuzquien, cergatic guztiendaco paratuzuen Salvacioaren, eta vicitce eternoaren erremedioa.

Bi garren Dembora Marie Santisime gure Ama Espirituala eguincena, eta engendratu guñuzquiena Graciena: hizanducen. Calvarioan ofrecicionien Aite Eternoari, vere viotceco Dolore andienequi, bere Seme Maitaren vicie gure Salvaciogatic. Orduen, esatendu Sn. Agustiñec Cooperatuzuela bere Amoriorequi, Christioac jayozaitecen Vicieren Graciera: eta onequin egincen gu guztion Ama, hizanic gu miembroac Jesu Christorenac.

Marie Santisimeri gu salvaciogatic, ongi idurituzaquion,, sacrificatcie eriotza, eta Pasio Dolorescoarequi bere Seme Maitiaren Vicie, eta orduontatic bere Dolore, eta penaquin joyaguñuzquien gu guztioac vicitce eternoraco: Orgatic gu guztioac daitugaitezque Marie Santisimeren Dolorien, eta penen Semiatic.

Orgatic San Buenabeturac discurrircendu, eta esatendigu, nola Marie Santisimec icusiric zaiñ andie cen Aita Eternoaren Amorioa guizonen alde, icusi nazuena illic bere seme gguizon eguiñe gu salvaciogatic: Conformatciogatic Aitec, eta Semeac gu ganaco zacaten Amorio fin gabe onequin; ofrecituzuen Marie Santisimec bere vorondate guztiequi bere Seme guztiz Amorosoaren eriotza, guc alcanzaciogatic gueren animen Salvacioa.

Eguie da Jes Christoc bacarric nai hizanduzuen illcia genero humanoa salvaciogatic. Paño icusiric Jesu Christoc zaiñ andie cen Marie Santisime bere Amac zaucan deseoa contribuitceco bere partetic gure animen salvaciara, disponitu zuen onec ere bere partetik cooperacezan Jesu Christoren eriotzaren Sacrificioarequi gure animen salvaciara: eta Onequin hizanzaien gure animen Ama eguiazcoa.

Au significatuzuen gure Salvadoriec, gurutcetic ill baño lenago bere Amari, eta Sn. Juan Discipuloari dirigitucituen itzaietan. Lembicico esancion Amari *Orra zure semea* Sn. Juanengatic. Esan balio bezala: Orra genero humanoa joyaric Graciera, zuc nere bicie ofrecicies eguitenduzun Sacrificioa dela medio. Eta guero esancion Discipuloari: *Orra zure Ama*. Itzaubequi nai hizanduzuen Jesusec nombratu Marie Santisime, ez bacarric Sn. Juanen Ama baicic gu guztion Ama Sn. Bernardino de Senac esatenduen bezala. Bendicatie hizanbedi bada gure Jesus Divinoa olaco Ama eman cigune gure vicitce eternoaren amparo eta seguridaderaco!

Egenploa

Andrade. Tit. 2.º. fol. 18

Gure animen Amada Marie Santisime principalmente; baño munduonataco trabajuetan here, emandu entendatcera zaiñ cuidado andie daucan socorritceco trabajuetan, eta penetan daudenei, eta Ama amoroso onen amparoa escatudutenei. Trabajauc cembat di, eta cembat modus etorcendaizquin guizonari mun-

du ontan da imposible guc contatcie: baño auetan guztietan alcanzatudute MARIE Santisimeren Amparoa, bere Devotoac, eta onen amparora acogitudirenac.

Suriok escribicendu; nola Santa Brigida arquitecen, aldiebatian, illecco peligro andien libratce gaiztoatian; gizonac paratuzezaqueten medio guztiec, eta diligencie guztiec tantiatu ondoan here etcen posible hizandu ateratcia apuro aratic: Nola baicen ona ofrecitcen aricen trabaju guztiec Jaun Divinoari paciencie andierequi; eta etsiric etcela erremio humanoric ateratceco apuruartutic recurrituzuen Marie Santisimerengana, ofrecenciola bere vicie, eta semearena dispoñicezala ayetas bere Vorondatia cenbezala. Balietucequion bere peticioa: Bada Marie Santissime etorrizaquion visitetcera, eta laguncera; ez lotan edo imaginacioan beste ascori bezala; baicic Matrona venerablebaten figuren; Sartucen hechean, eta arrimetucen Brigidarengana, eta itzce dulce, eta amoresequi consolatzuen, esforzatzuen, eta Jaun Divinoaren confianza andies betezuen, quenducition libratciec cecarquien trabaju guztiec, eta orrequin libratucen seme eder bates.

Mesede au guztie ola eguiñ ondoan emancion bere bendecioa, eta orrequin despeditucen, uztenzuela ecin gayegos consolaturic: Santa Brigidac bacarric ezagutuzuen Matrona ederrau cela Marie Santissime bada beste presente zauden guztiec etzuten ezagutu, eta ustezuten bidecela Ciudadeco Matronarembat, Virgidaren ezagunenbat. Onequin bere dembora guztien hizanducen ecin gayegos agradecitue Marie Santissime.

Beste emacume baten gatic dio Aita Francisco Bencioc; nola egunducen iru egunes ecin libratu aurra atrabesatuzaquion medios. Bere senarra cen Congregantie Marie Santisimeren cofradiebateco; eta Marie Santisimeren choill devotoa: Onec creuquen Ama Virgiñeren Medallebat, eta paratucion lepoan bere emazteari esatenciola encomendazaiela viciro Ama Virgiñeri tranceartan. Au eguiñ orduco bela libratucen bat erere trabajuric gave. Ona nola Marie Santisimec socorritcendituen bere Devotoac trance estuetan.

Obsequioa

Yduqi cuidado andie ibilcies berequi bañerere faltagave Errosarioa, Marie Santisimeren Medallerenbat, edo Escapularioa.

Jaculatoria, edo eraipena Marie Santisimeri maiz eguinbiardana. Santa María Jaun goicoaren Ama, eta gure Ama, Berroren amparora acogitu naidugu dembora guztien Demboretan. Amen.

En el presente trabajo eukérico, presento las dos obras vascas de “MES DE MAYO: MES DE MARIA” de Juan Miguel gastesi, natural de Irañeta y párroco de Lacunza, que escribió la primera en 1850 y la segunda en 1854.

La primera es versión del “Mes de María” editada en Madrid en 1841 por la “Compañía General de Impresores”, enriquecida con algunos ejemplos.

La segunda, en su mayor parte está tomada de “Las Glorias de María” tratada y enriquecida con libertad y adaptada a los 31 días del Mes.

Previamente aporto sus datos bigráficos, su larga gestión al frente de la parroquia de Lacunza, su vocación de escritor vasco y sus múltiples sermones.

Para terminar ofrezco dos muestras de cada uno de los dos Meses, para que los amantes de las letras vascas conozcan y aprecien su obra.

Lacunza a 19 de mayo de 1986

